

2025eko azaroak 25

Emakumeen Kontrako Indarkeriaren aurkako

Nazioarteko Eguna



Irakurketa Errazean

Indarkeria matxista digitalak baditu ondorio errealak

Azaroaren 25 bakoitzean

Nafarroako tokiko eta lurralde entitateek

ahotsa altxatzen dugu

emakume askok jasaten duten

indarkeria matxistari **ezetx** esateko.

Tokiko eta lurralde entitateek

Nafarroako gai publikoak kudeatzen dituzte,

adibidez, udalek.

Indarkeriarik gabeko mundua nahi dugu

non emakumeek eta neskek

beldurrik gabe, askatasunez

eta eskubide osoz bizi ahal izango diren.



Zeri buruz ari gara aurten?

Aurten gero eta gehiago gertatzen den
eta ikusteko zailagoa den
indarkeria mota bati buruz hitz egin nahi dugu:
emakumeen eta neskatuen aurkako
indarkeria digitalari buruz hitz egin nahi dugu.

Aurtengo leloa hau da:

**Indarkeria matxista digitalak
baditu ondorio errealak.**

Indarkeria digitala beste pertsona bati
min egiteko, kontrolatzeko edo lotsatzeko
Internet, sare sozialak
edo mugikorra erabiltzea da.

Esan nahi dugu
Interneten edo sare sozialetan gertatzen denak
benetan mina egiten duela
eta ez dela pasatzen utzi behar.

Indarkeria matxista denborarekin aldatzen da,
baina gure salaketa eta gure borroka
indartsu jarraitzen dute.



Zer da indarkeria matxista digitala?

Ez dago definizio bakarra, baina esan dezakegu teknologiak edo Internet erabiltzen direnean egiten den indarkeria matxista mota bat dela.

Adibidez, honako leku hauetan gerta daiteke:

- Sare sozialetan.
- Mezu-aplikazioetan, adibidez WhatsApp-ean.
- Webguneetan.
- Bideojokoetan.

Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itunak dio indarkeria digitala eraso mota garrantzitsu bat dela.

Horregatik, neurriak jasotzen ditu indarkeria mota hau prebenitzeko, antzemateko eta zigortzeko.



Nori eragiten dio eta nola?

Indarkeria digitalak
eskubide oso garrantzitsuak urratzen ditu,
adibidez, askatasunerako eskubidea,
berdintasunerako eskubidea,
duintasunerako eskubidea
eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea.

Duintasuna

pertsona bakoitzak duen balioa da,
gizakia izate hutsagatik.

Osotasun fisiko eta morala

pertsona guztiok dugun eskubidea da
inork ez diezagun minik egin,
ez gorputzean, ezta buruan edo emozioetan ere.

Indarkeria matxista digitalak
gehienbat eragiten die:

- Emakume gazteei.
- Espazio publikoetan parte hartzen duten emakumeei,
adibidez, sare sozialetan edo komunikabideetan.



Indarkeria mota hau
modu askotan ager daiteke:

- **Ziberjazarpena.**

Pertsona batek Internet, sare sozialak edo mugikorra erabiltzen dituenean beste pertsona bati irain egiteko, mehatxatzeko edo molestatzeko.

- **Gorrito-diskurtsoak.**

Mezuak edo komentarioak egiten direnean beste pertsona bat edo talde bat iraintzeko, umiliatzeko edo eraso egiteko.

- Bikotekidearen kontrol digitala.

- Irudi intimoak baimenik gabe zabaltzea.

Irudi intimoak pertsona bat biluzik edo gorputzaren zati pribatuak erakusten agertzen diren argazkiak edo bideoak dira.

- Argazkiekin edo bideoekin xantaia egitea.



Honi **sextortsioa** deitzen zaio.

Xantaia pertsona batek beste bati zerbait lortzeko mehatxuak egiten dizkionean da.

- **Irudien manipulazioa.**

Pertsona batek argazki edo bideo bat aldatzen duenean programak edo aplikazioak erabiliz, benetakoa ez den zerbait irudikatzeko.

Adibidez, pertsona baten aurpegia biluzik dagoen beste pertsona baten gorputzean jartzea.




- **Mendeku pornografia.**

Pertsona batek bere baimenik gabe
beste pertsona baten argazki edo bideo intimoak
konpartitzen dituenean.

Askotan, irudi horiek konpartitu egiten dira
bikote edo konfiantza harremana izan ondoren.

Konpartitzen dituen pertsonak
min emateko, umiliatzeko edo mendekatzeko egiten du.



Zer ondorio ditu indarkeria matxista digitalak emakume heldu eta gazteengan?

Emakume eta neska gazte horientzako
ondorioak oso errealak eta larriak dira.

Emakume eta neska askok honakoa sentitzen dute:

- **Antsietatea.**
Zerbait txarra gertatu ahal dela uste dugunean agertzen den beldurra, nerbioak edo kezka da.
- **Depresioa.**
Pertsona bat oso triste, nekatuta edo denbora luzean ezer egiteko gogorik gabe sentiarazten duen gaixotasun emozionala da.
- **Isolamendua.**
Pertsona bat besteengandik aldentzen denean eta kontaktua edo harremana izateari uzten dionean, adibidez, familiarekin, lagunekin edo lankideekin.
- **Beldurra.**
Zerbaitek edo norbaitek min egin ahal digula uste dugunean sentitzen dugun emozio da.
- **Internet erabiltzeari uztea**
horrela kalterik egin ez diezaieten.



Honen guztiaren ondorioz,
emakumeen ahotsak gutxiago entzuten dira
eta gutxiago parte hartzen dute bizitza publikoan,
adibidez, sare sozialetan edo komunikabideetan.
Hau emakumeen eta gizonen arteko
desparekotasunak indartzeko moduetako bat da.




Datu garrantzitsu batzuk

Hona hemen NBEak

edo Nazio Batuen Erakundeak

ematen dituen datu garrantzitsu batzuk:

- 10 emakumeetatik 7k baino gehiagok indarkeria motaren bat jasan dute Interneten.
- 18 eta 24 urteko emakumeek jazarpena edo mehatxuak jasateko arrisku handiagoa dute.
- Europar Batasunean 9 milioi emakumek bizi izan dute indarkeria Interneten 15 urte zituztenetik.
- Herrialde askotan Interneteko jazarpena eta abusua ez dira zigortzen.
- Indarkeria digitala jasan zuten 10 emakumetik ia 3k Internet edo sare sozialak erabiltzeari utzi zioten.
- Baimenik gabe zabaltzen diren 10 sexu-irudietatik 9 irudi emakumeenak dira.



Zer konpromiso hartzen ditugu Nafarroan?

Nafarroako toki eta lurralde entitateetatik konpromiso hauek hartzen ditugu:

- Indarkeria digitala indarkeria matxistaren forma gisa onartzea.
- Poliziaren, gizarte-zerbitzuen, hezkuntzaren edo osasunaren arloko profesionalak prestatzea indarkeria digitaleko kasuak detektatzeko eta horietan azkar jarduten jakiteko.
- Sentsibilizazio-kanpainak eta jarduerak egitea gazteei eta nerabeei Internet modu seguruan eta errespetuz erabiltzen irakasteko.
- Indarkeriarik eta diskriminaziorik gabeko espazio digital gehiago egon daitezen lan egitea. Horretarako ikastetxeekin, komunikabideekin eta elkarteekin lan egingo dugu.
- Baliabide eta protokolo bereziak sortzea indarkeria digitalaren biktima diren emakumeei arreta emateko.
- Beste erakunde eta kolektibo feminista batzuekin lankidetzan aritzea indarkeria digitala desagerrarazteko bidean elkarrekin aurrera egiteko.
- Tokiko politika publikoak garatzea indarkeria horrek eragin duen kaltea prebenitzeko, detektatzeko, artatzeko eta konpontzeko.



Gure azken mezua

2025eko azaroaren 25ean
gizarte osoa gonbidatzen dugu
gai honetan aktiboa izatera.

Elkarrekin mundu digital askea,
berdintasunezkoa eta segurua eraiki nahi dugu.

Taldean lan egiten badugu bakarrik
lortuko dugu emakumeen aurkako
indarkeriarik gabeko gizarte bat.



Gogoratu

Indarkeria matxista digitalak
baditu ondorio errealak.

